

Zientzia eta teknologia

JOXERRA AIZPURUA

Biziaren sorrera hiru dimentsiotan

ZELULAZ ZELULA, ikerlari talde batek ornodun baten enbrioia-
ren garapena filmatu du lehen aldiz. Zebra-arrain (*danio rerio*)
enbrioia aukeratu dute, hain zuzen, horretarako. EMBLko
(Europako Biologia Molekularreko Laborategia) Philipp
Keller, Annette Schmidt, Jochen Wittbrodt eta Ernst Stelzer-
ek arrautza ernaltzen den unea eta ondoren gertatzen den pro-
zesua filmatu dute.

Kellerrek eta haren lankideek ani-
maliaren lehen 24 orduak filmatzea
lortu zuten DSML (Digital Scanned
Laser Light Sheet Microscope) siste-
man oinarrituz. Epe horretan
enbrioia zelula bakarra izatetik 20.000
izatera igaro zen, eta bilakabide
horretan animaliaren oinarritzko orga-
noen formazioa ikus daiteke. Orain
beste enbrioio batzuekin –sagua, igela
eta oilaskoa– saiatu nahi dute, bakoit-
zaren formazioaren patroiak ezartze-
ko asmoz.

Orain arteko saiakerak mikroskopio
fluoreszenteen bidez egin izan dira,
baina sistema horrek kaltetu ditu eratzen ari diren organo-
ak; aldiz, aipatutako laser sistemak ez du arazorik eragiten organo
sortu berrietan.



Zebra-arrain enbrioien irudia.

Etorkizuneko zubiak

MARC MIMRAM frantziar arkitektoa etorkizu-
neko porlana sortzen ari da, zubiak estatiko
izateari utzi eta “bizia” izan dezaten.

Urriaren 1ean AEBetako Columbia Uni-
bertsitateak antolatutako hitzaldi-erakuske-
tan, Mimramek munduko lau hiritan
–Mosku, New York, Paris eta Shanghai–
beste hainbeste zubi bizidun irudikatu
zitu. Lafarge taldeak sustatutako azterke-
tan, Mimramek zuntzeko porlana hautatu
du zubiak eraikitzeko, haren elastikotasun
eta malgutasunak aukera izugarriak eskain-
tzen baitituzte egungo porlanaren ondoan.
Gainera, arkitektoak zarata saihesteko siste-
ma aurreratuak asmatu ditu; zubiota egingo den guztia gara-
pen iraunkorrean oinarrituko da.



Marc Mimram honelako
zubiak diseinatzeagatik
bihurtu da ospetsu.

Aitarik gabeko marrazoa jaio da

AEBetako akuario batean azken
zortzi urtean bizi izan den
marrazo eme batek kumea eduki
du ar batekin harremanik izan
gabe. Nola?
<http://ttiki.com/1034>

Urak itxura arraroak hartzen ditu gorputz barnean

Gure proteinek uraren egitura
eta propietateak eraldatzen
dituzte, zientzialariek esan berri
dutenez. Antza, likidorik ezagu-
nena ez dugu uste bezain ongi
ezagutzen.
<http://ttiki.com/1033>

Minbiziaren kontrako borrokan urrats berria

Farmakoak tumorerraino berta-
raino eramaten dituzten nano-
garraiatzaileak garatu berri
dituzte AEBetako laborategi
batean. Gure gorputzeko siste-
ma immunologikoa ez da gauza
garraiatzaile horiek detektatze-
ko, eta beraz ezin die bidea
oztopatu.
<http://ttiki.com/1032>

Txinpanze kopurua beherantz Boli Kostan

Gerrak eta gizaki populazioa
handitzeak triskantza eragin du
Boli Kostako txinpanzeengan:
azken hogeitau urteotan haien
kopurua %90 jaitsi da.
<http://ttiki.com/1035>

ideia batetik errealitatera



web garapenak



multimedia



aholkularitza



edukiak

iametza

interaktiboa

www.iametza.com

T.943 37 67 16